


Sakonean



BULLYING:

nola apurtu
isiltasun-katea
katea



Bullying, hitzak ingelesez “handiputz” edo “ahobero” esan nahi du eta, “ikasle batek edo batzuek beren ikaskideei denboran zehar eta guztiz nahita egindako ekintza negatiboak” adierazteko erabiltzen da. Europako herrialde askotan ikertu da eta arazo hau salatzen duten ikasle, irakasle eta gurasoentzako aholkuak ematen dituzten web gune ugari daude ingelesez. Estatuan ez eta Euskal Herrian ere honelako gunerik ez egon arren, terminoa, zoritxarrez, ezagun bihurtu da gure artean Hondarribiako Institutoan gertatutako ezbeharrak dela eta. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak arazo honen gaineko galderak egiteko web gune bat zabaldu du www.ikasle.net helbidean.



Lanean hasi ahal izateko *Bullying*-a zer den eta zer ez den zehaztu behar da. Dan Olweus Norvegiako irakasleak eman zuen hitz honen esanahirik onartuena: “Ikasle bat erasotzen da edo biktima bihurtzen da behin eta berriz eta epe batez beste ikasle batek edota batzuek egindako ekintza negatiboak pairatzen dituenen.” Orriotan arazo gordin hau aurreikusi eta tratatzeko neurri batzuk batu nahi izan ditugu. Ezin dugu ahaztu hala ere familia eta eskola guneko ahalmenak gaingaitzen dituen arazo sozial bat ere ba dela.

“BESTE PERTSONA BATEKIN JOATEA NAHIKOA DA ERASOA EZ GERTATZEKO”



Rubén Belandia, BULLYING-EAN ADITUA

BULLYING TERMINOA, ZORITXARREZ, OSPETSU BIHURTU DA IKASTURTE HONEN HASIERAN HONDARRIBIAKO INSTITUTOAN GERTATUTAKO EZBEHARRARI ESKER ETA, ERASO MOTA HAU PREBENITZEKO ETA TRATATZEKO IKASTAROAK, TAILERRAK, ETA BESTELAKOAK UGARITU EGIN DIRA. DENA DELA, STEE-EILAS SINDIKATUA ASPALDI HASI ZEN IKASLEEN ARTEKO BELDURRARAZTE ETA TRATU TXARRREN ARAZOAREKIN LANEAN. RUBEN BELANDIAREKIN HITZ EGITEKO AUKERA IZAN DUGU, BERAK BULLYING -AREN GAINEKO HITZALDIAK EMATEN DITU GIPUZKOA, BIZKAIA ETA ARABAKO IKASTETXEETAN ETA AZKEN HILABETEETAN LANA PILATU EGIN ZAIO.

-Nola definituko zenuke *Bullying*-a?

Ikasle batek edo batzuek beren ikaskideei denboran zehar eta guztiz nahita egindako ekintza negatiboak.

-Gehienetan pertsona bakar bat erasotzen da ezta?

Bai, gehienetan helburua pertsona bakar

bat izaten da. Ez da talde baten kontra jotzen, taldeak pertsonen gaineko babeste lana egiten baitu eta *bully* delakoek bilatzen dutena ahulezia da, taldearen babesik ez duten pertsona ahulak psikologikoki. Erasotzaileek biktima bakarrik egoten den tokiak eta uneak bilatzen dituzte. Beste pertsona batekin joatea nahikoa izaten da erasorik gerta ez dadin. Hau dela eta, biktimei ematen zaien aholkuetariko bat horixe izaten da, norbaitekin joatea.

-Zein da ikastetxeetan eman daitezkeen bestelako erasoekiko desberdintasuna? Zergatik da antzeko beste portaerak baino arriskutsuagoa?

Jarraikortasunagatik batez ere. Erasoa denboran errepikatzen da eta protagonistak berberak izaten dira. Bigarren ezberdintasuna, nahita egitea litzateke. Ez da txantxa bat, ez da diziplina apurtzeko une zehatz batean egiten den ekintza bat, apropos egiten da pertsona hori zapaldu eta deusezteko asmoz.

Beste ezaugarri garrantzitsu bat kasu hauen inguruan ematen den “Isiltasunaren Legea” da. Alde batetik, erasotzaileak, kontatuz gero bikoitza jasoko duela esanez mehatxatzen du biktima eta bestetik, “begirale” taldeak gertatzen dena kolektibotik at ez kontatzeko presioa egiten du. Erasotzaileak behin eta berriz errepikatzen dio eta inguruak ere horrela hartzen du, beraz biktimak merezi duena ematen diotela sinestuko du.

-Nor konturatzen da lehenago, familia, eskola...?

Erasoa pairatzen dutenen %20k inori ere ez dio kontatzen. Kontatzen dutenen gehiengoak beren lagunei edo ikaskideei kontatzen diete. %36k beren gurasoei eta, irakasleei ia inork ez die kontatzen. Irakasleek normalean bi arrazoi direla medio ez dute jakiten: *bullying* kasuen inguruan ematen den “Isiltasunaren Legea” delakoagatik eta, erasoak gehienetan heldurik ez dagoen lekuetan ematen direlako.

BULLYING-AREN EZAUGARRIAK

- Zapaltzaile batek edo talde batek erasoturiko biktima bat (babesgabea) egon behar du.
- Indartsuena eta ahulenaren artean botere desberdintasuna egon behar du.
- Erasoa errepikatu behar da.
- Gehienetan pertsona bakar bat erasotzen da, ez taldea.

- Erasoa pertsona bakar batek edo taldeak egin dezake.
- Erasotzaileak gizonezkoak izaten dira gehienetan.
- Biktimak ahulak, dudatsuak, antsietate handikoak, zuhurrak, sentsibilitate handikoak, lasaiak, lotsatiak eta autoestimua baxukoak izaten dira.

-Zer egin daiteke "Isiltasunaren Lege" hori apurtzeko?

Hasteko eskolako kolektibo guztiak informatu behar ditugu; *Bullying*-ak nola funtzionatzen duen eta aurre nola egin ahal zaion esan behar diegu.

Lege hauek apurtu eta gertatzen ari denaz berri ematea oso garrantzitsua da; kasu hauen lekukoek ez direla salatzen ari, baizik eta ikaskide bat pairatzen ari den sufrimendu egoera guztiz bidegabe bat konpontzeko laguntzen ari direla, eta egoera honen aurrean ezin dutela beste aldera begiratu jakin dezaten. Erasotzailearekin izan dezaketen adiskidetasunak ez du merezi, mehatxuan oinarrituta baitago. Ezin dira mehatxu honen pean bizi eta egoera konpontzeko parte hartu behar dute.

-Baina hau nola lor daiteke?

Jokinekin gertatutakoa oso gogorra izan da eta kolpe handia irakasle, guraso eta ikasleentzat. Honelako zerbeit gertatzearen aukera hutsa ikaragarria da oso, honelako gertaerak garrantzirik gabekoak edo ahulenak iratzartzeko balio dutenaren betiko ideia zaharkitua aldarazteraino.

Eduki ditzakeen ondorioen tratamendua ez da berbera. Jada inor ez da konformatuko bere seme-alabei "jo ezazu zuk ere", "esnatu" eta honelakoak esatearekin. Arazoa konpontzeko ikastetxearen partehartzea bilatuko da. Lehen gai honi ez zitzaion garrantzirik ematen, gaur egun eta zoriturrez, bai.

-Ematen du arazoa biktimak daukala, biktima tratatu behar dela. Baina nola tratatzen da erasotzen duen pertsona?

Erasotzaileak bi arazo ditu batez ere: ez daki bere erasotzeko bulkadak kontrolatzen ez eta mugak ipintzen ere eta, biktimaren sufrimenduaren aurrean ez du ezer sentitzen. Biktimak, gertatzen zaiona merezi duela uste du eta taldean

aritzen denez, bere ardura guztiz disolbatuta geratzen da.

Tratatzeak, batetik mugak jartzea eta bestetik, biktimaren tokian jartzea eskatzen du.

Hezkuntza sistema osoak prebenitzeko lana egin beharko luke, baloreak landuz, ustezko erasotzailea biktimaren paperean kokatuko duen rol jokoak eginez, literatura eta, nahiz eta gutxi egon, baliabide didaktikoak erabiliz.

Prebenitzeko lan gutxi egin da. Asko dago egiteko. Herrialde batzuetan badituzte materialak, itzuli eta egokitu beharko lirake... gure egoerarekin bat hobe datozenak sortu.

Irlandako Gobernuak, adibidez, antzerki talde bat sortu zuen *Bullying*-a bi bertsioren bidez lantzen zuena, bat lehen hezkuntzarako eta bestea bigarreneko, zegozkien gida didaktikoak ere bazituztelarik. Herrialdeko ikastetxe guztietan antzeztu zen.

Bestetik, Madrilgo Instituto bateko ikasleek "Egun bat gehiago" izeneko bideo bat egin zuten, gida didaktiko bat dauka eta Madrilgo Komunitateko Adin Txikikoek Defendatzaileari eskatu ahal zaio.

-Ba al dago EAEko ikasgeletan *Bullying*-ak daukan eraginari buruzko daturik?

Ez. Avilesek Estatu mailako datuak jaso zituen 2002. urtean aurkeztu zuen tesian. Kasuen %6an erasoak nahiko jarraian ematen dira (astean behin) eta egunero %1,6an. Alde honetatik kontu handiz ibili behar dugu komunikabideetan ematen ari diren datuekin, izan ere erasoak bullying-tzat hartzeko nolabaiteko maiztasunez eman behar da.

-Batez ere bigarren hezkuntzan ematen dela esan dezakegu ala ez?

Etap guztietan ematen da neurri berean, hori bai, erasoak bestelakoak izaten dira. Lehen Hezkuntzan fisikoagoak dira,

"GURASOEK EZ DUTE ERASOTZAILLEKIN EDOTA ERASOTZAILLEN GURASOekin ZUZENEAN HITZ EGIN BEHAR"

bigarrenean aldiz psikologikoagoak eta baztertzailagoak. Eskolaurrean ere ematen da, baina umeak hain txikiak direnez inork ez dio garrantzirik ematen. Arazo hau bere oinarritik konpontzeko, maila guztietan landu behar dugu eta, Bigarren Hezkuntzan baino ematen ez dela pentsatzen dutenei txipa aldatu behar diegu portaera hauek umeak txikiak direnetik ekidin ditzagun eta duten garrantzia eman diezaiegun.

-Jose Maria Avilesen ustez "elkarbizitza hobetzeko politikek ez dute *Bullying*-a konpontzen". Ados zaude? Zergatik? Zer egin beharko litzateke?

Elkarbizitza lantzea ondo dago, baina bullying-a bera landu behar da. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak "Bizitzarako Trebetasunak" kanpaina abian jarri berri du eta honetan, bullying-



ELKARBIZITZA ETA BAKERAKO HEZKUNTZA

Hezkuntza Sailak ikasleek beren zalantzak eta arazoak adituekin kontsultatzeko web gune berri bat jarri du abian: www.ikasle.net. Honetaz gain irakasle, ikasle eta familien artean hausnartzeko materiala bidali du zentroetara, bakoitzak ikasleek paira dezaketen erasoari aurre egiteko eta zuzentzeko neurriak har ditzan. Gaur egun eta Sail honen

datuen arabera, EAEn "Elkarbizitza eta Bakerako Hezkuntza" eta "Bizitzarako Trebetasunak" programen barruan lan egiten ari diren 100 ikastetxetik gora daude. Biok ere lehentasuna duen Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzaren "Guztiontzako eskolarantz" barruan kokatuta daude.

a zehazkiago lantzen da. Dena dela, hartu beharreko neurrien inguruan adostasun orokor batera heldu behar dugula uste dut. Ez da nahikoa Administrazioak ematea eta zentroetara bidaltzea. Hezkuntza eragile guztien ekarpenak batu beharko lirateke, denok hartu beharko baitute beren konpromezua. Irlandan honelako zerbait egin zen eta hezkuntzarekin zerikusia zuten erakunde guztiekin lan egin zen.

“ERASOTZAILEAK EDOZEIN FAMILIA MOTATAN EGON DAITEZKE”



-Nola antzeman dezakegu *Bullying* kasu bat etxean? Nola tratatu behar dugu erasoak jaso duen seme-alaba?

Honelakoetan jarri beharko genuke arreta: seme-alabek ubeldurarik duten begiratu, arropa apurtuta daukaten, eskola materiala ohi baino maizago apurtzen zaien. Baita portaera aldaketarik eman den, lo egiteko arazorik dagoen, haserrekorrago dagoen... oso datu garrantzitsua izaten da bat-batean eskolara joan nahi ez izatea eta burukomina dutela bezalako aitzakiak ipintzea. Baliteke ere, beren lagunei buruz hitz egin nahi ez izatea.

-Baina honelako sintoma guzti hauek ez dute atzean erasotako ume bat...

Ez, baina susmoak izateko bidea zabaltzen dute. Orduan lagunekin, neba-arrebeekin (izatekotan) eta zentroarekin kontsulta daiteke. Gurasoek ez dute erasotzaileekin edota erasotzaileen gurasoekin zuzenean hitz egin behar. Garrantzitsua da oso, semea edo alabarekin argi hitz egitea, familiaren laguntza osoa duela

jakinaraztea eta kritika ekiditea. Gertatzen zaiona bidegabekoa dela eta ekiditen lagunduko diogula esan behar diogu. Emango dugun pauso zehatz bakoitza eztabaidatu behar dugu berarekin. Erasoak gertatzen diren tokietara ez joateko eta laguntza bilatzeko esan behar diogu.

-Eta nola antzeman daiteke eskolan? Nola jokatu behar dugu?

Eskolan eraso bihur daitezkeen egoerak antzemateko soziogramak egin daitezke, talde barruan sortzen diren harremanak hausnartzen baitituzte. Ikasleren bat bere ikaskideek baztertuta dagoen ikus daiteke eta agian ez da klasean antolatutako ekintzetara apuntatzen. Adi egoteko seinalea da eta agian, ikasle horrek bereziki irakasleen arreta beharko du. Izan ere, *Bullying*-a pairatzeko aukerak ez daude betaurrekoak eramatearekin edo belarri handiak izatearekin lotuta. Psikologikoki ahulak direnak edo taldearen babesa ez dutenak erasotzen dira batez ere.

Baztertze kasu bat antzematen denean, baztertze hori apurtzen saiatu behar dugu lehenbizi, ikaslea ikaskide baten babespean jartzen saiatu, taldean sartzen saiatu, taldeak pertsona horrekiko duen iritzia aldaratzen saiatu.

-Zuek, ikasleak bakarka egoten diren guneetan helduen kopurua handitzeaz hitz egiten duzue baina batzuetan hau ez da hain erraza izaten...

Zentroa bera, jolastokia, zentroan iluntzat hartzen diren, argi gutxi duten edota hondatuta dauden guneak zaintzeaz arduratu daiteke. Arazo gehien sortzen duten etarikoak Bigarren Hezkuntzako autobusak dira, horietan bertan Eusko Jaurlaritzak zaintzailerik ez egotea agindu du. Gauza bera gertatu da jantokietan. Ikastetxe publikoetan Hezkuntza Sailak erabakitzen du zenbat monitore egon behar diren eta enpresa emailei pertsona berarengan eta kontratu gutxiago egiteko asmoz ordutegiak batzea baimentzen zaie, gune honen zaintze mailak behera egiten duelarik. Honelakoetan Gobernuak zuzenean hartu beharko lituzke neurriak ikastetxearen esku ez dagoelako.

“BULLYING-A PAIRATZEKO AUKERAK EZ DAUDE BETAURREKOAK ERAMATEAREKIN EDO BELARRI HANDIAK IZATEAREKIN LOTUTA. PSIKOLOGIKOKI AHULAK DIRENAK EDO TALDEAREN BABESA EZ DUTENAK ERASOTZEN DIRA BATEZ ERE”

Eskola ordutegiz kanpoko ekintzak ere zainduta egotea planteatu behar dugu, gaur egun ezinezkoa dena. Ikastetxeek gune hauek behatzeko monitoreak eduki beharko lituzkete, udaletxeen bidez lor daitekeena eta hauekin Sailak, EUDELen bidez, negoziatu beharko luke.

- Eskola eta familia gunea gaintzen duen arazo sozial bati buruz ari garela

kontuan izanda, ez al zaizkio ardura gehiegi eman eskolari?

Gizartearen jarrera orokorra arazo guztiak hezkuntza sistemak konpon dezan eskatzea da, baina kontuan hartu behar dugu azken urteetan eta balore-hezkuntzari dagokionez, atzera egin dela. PP-ren kontrarreforma dela eta, berariazko edukiek garrantzi handiagoa hartu dute zehar-edukien kalterako. Balore-hezkuntza indartu behar dela uste dut baina garrantzitsua da ere, irakasle bakoitzaren lehen tasun profesionalak planteatzea. Balore-hezkuntza honekin arduratu behar dira, ikasgaia ematera mugatu barik. Ikasleekiko hurbiltasun gune bat bilatzea ere garrantzitsua da, nahiz eta batzuetan zaila izan, Bigarren Hezkuntzan batez ere.

Eskolan erasotzaile diren batzuek agian tratu txarrak jasotzen dituzte etxean. Baina honetaraino heldu gabe batzuetan zuzenak ez diren moduak erabiltzen ditugu seme-alaba bati bere neba-arreba ez jotzeko esan eta ondoren geuk jotzen dugunean adibidez. Gauza bat esaten ari gara eta beste bat adierazten. Hala ere, eta nahiz eta gure seme-alaba giro egoki batean hezi, faktore pertsonalek ere eragina izan dezakete. Ingurunearen eragina ere ezin dugu ahaztu. Biolentziak agintzen duen, giza eskubideak errespetatzen ez diren, lehia nagusia den giroan bizi bagara... zaila da hori guztia alde batera uztea.

“LEKUKOEK EZ DIRELA SALATZEN ARI, BAIZIK ETA IKASKIDE BAT PAIRATZEN ARI DEN SUFRIMENDU EGOERA GUZTIZ BIDE GABE BAT KONPONTZEKO LAGUNTZEN ARI DIRELA JAKIN BEHAR DUTE”

-Zer eragin eduki dezake familia giroak *Bullying* kasu bat emateko?

Familiari dagokionez, ekonomi mailak, gurasoen formazioak, bizi direneko auzo motak edota guraso bakarreko familia edo banatuta izateak, ez dute eraginik. Oraindik erasotzailea era zehatz batez aurkezten duten estereotipoak badaude ere, hau ez da egia. Erasotzaileak edozein familia motatan egon daitezke. Familia barruan eragina eduki dezaketen faktoreak hauexek dira: afektibitate nahikoa transmititu izana, besteekin kalitatezko harremanak izaten ikastea, eraso nahi eta portaerei mugak ipini izana eta abar. Batzuetan, familian autoritate ezarpen okerrak ematen dira.

-Zein iritzi duzu Hondarribiako kasuaren gainean komunikabideek izan duten jarreraz?

Sentsazionalistegia izan dela uste dut. Errudunak oso arinki bilatzen ari dira eta oso garrantzi gutxi ematen ari zaio benetan *Bullying*-a zer den eta nola konpon daitekeen zabalteari. Arazo honek nola funtzionatzen duen begiratu izan balute, bai familiek zein eskolek nabaritzeko arazo asko dituztela konturatuko ziren; baita lan egin ahal izateko. Ikastetxe publikoa zela azpimarratzen duenik ere egon da eta funtzionarioekin sartzen hasi dira. Baina arazo hau zentro mota guztietan ematen da, publikoetan zein pribatuetan eta bai hiri handietan baita herri txikietan ere.



- WWW.IKASLE.NET: EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAREN WEB GUNEA. BERTAN BULLYING-AREKIN ZERIKUSIA DUTEN ZALANTZAK ETA ARAZOAK KONTSULTA DAITEZKE. ELKARBIZITZAN ARITUA DEN TALDE BAT ARDURATZEN DA.

- 900 20 20 10: ANAR (ARRISKUAN DAUDEN UMEENTZAKO LAGUNTZA) FUNDAZIOAREN TELEFONOA.

- 91 726 01 01: NAGUSIEN LINEA (GURASO, FAMILIA ETA IRAKASLEENTZAKO ZERBITZUA).

SAREAN

www.stee-eilas.org

BULLYING: IKASLEEN ARTEKO BELDURRARAZTE ETA TRATU TXARRAK

Jada agortuta badago ere, STEE-EILASen web gunetik José María Aviles psikologo eta eskola orientatzailearen ikerketa deskarga dezakegu. Honetat gain Gaztela eta Leoneko STE sindikatuko Lan Osasuna Sailaren arduraduna da eta ikasleek artean ematen den berdinen arteko erasoaren inguruan ikertu du.

